

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1220

AGINDUA, 2021eko otsailaren 10ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburarena. Horren bitartez, baimendu egiten da, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80.4 artikuluan eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuak 15. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera, babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko estandarrak osorik betetzea, etxebizitza-transferentziak eginez, Markina-Xemeingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren baitan.

Aztertu da Markina-Xemeingo Udalak egindako baimen-eskaera, udalerriko hainbat eremutan babes publikoko bizitegi erabilerako hirigintza eraikigarritasunari buruzko legezko aurreikuspena konpentsatzekoa. Izan ere, zenbait eremutan murriztutako estandarra beste eremu zehatz batzuetan sartutakoarekin osatzen da.

GERTAKARIAK

Markina-Xemeingo Udalak aurkeztutako eskaera-orriari sarrera-erregistroa egin zitzaion 2021eko otsailaren 8an. Horren bidez, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 80.4 artikuluan aurreikusitako baimena eskatu zen, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren baitan, babes publikoko etxebizitzaren estandarra transferitzeko hainbat eremuren artean.

Ezarritako prozedurarekin bat etorritik, Markina-Xemeingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren espedienteak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso du 2012ko maiatzaren 23an eginiko 2/2012 bilkuran, behin betiko onartua izan aurretik.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.— Sail hau eskuduna da aztertzen den espedientea ebazteko, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 80.4 artikuluan eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuak 11.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.— Aurkeztutako eskaerak babes publikoko etxebizitzetarako lurzoru estandarraren konpentsazioa planteatzen du udalerriaren baitan.

3.— Organo honetara atxikitako zerbitzu teknikoek udalak aurkeztu duen eskaria aztertu dute. Bizitegirako hiri-lurzoruan, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzentzat legeak ezarritako gutxienekoa 4.840 m²t da. Babes sozialeko etxebizitzentzat, berriz, gutxienekoa 2.420 m²t da; eta gainerakoa, 4.840 m²t-ra artekoa, etxebizitza tasatuentzat. Hiri Antolamenduko Plan Orokorren arabera, 2.745 m²t dira babes sozialeko etxebizitzentzat eta 2.891 m²t etxebizitza tasatuentzat.

Lurzoru urbanizagarri sektorizatuari dagokionean, ezarritako gutxieneko estandarrak 12.327 m²t dira babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzaren eraikigarritasunerako. Babes sozialeko etxebizitzentzat, berriz, gutxienekoa 9.040 m²t da, eta gainerakoa, 12.327 m²t-ra artekoa, etxebizitza tasatuentzat. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean, babes sozialeko etxebizitzaren eraikigarritasunerako, zehazki, 9.040 m²t-koa izatea aurreikusten da, eta 3.287 m²t etxebizitza tasatuen eraikigarritasunerako.

4.– 2/2006 Legearen 80.6 artikulua arabera, ezinbestekoa izango da, transferentzia hori baimentzeko, transferentziaren xede diren eremuetako etxebizitza libreen arteko balioen aldea-
rekiko proportzionala den babes publikoko etxebizitza-kopuruaren alde aurreko edo aldi bereko egikaritzea bermatzea.

5.– Neurri hori ez da aplikatzen lehen formulazioko edo planeamendu orokorraren erabateko berrikuspen espedienteetan, hala baitago xedatuta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 14.4 artikuluan.

Aztertuta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua, baita Euskal Autonomia Erki-
degoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak emandako aldeko txostena ere, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Baimentzea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin eta hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuarekin bat etorrita, aipatutako legearen 80.4 artikuluan eta aipatutako dekretuaren 15. artikuluan aurrei-
kusitako transferentzia, Markina-Xemeingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean.

Agindu honen eranskinean daude jasota Markina-Xemeingo udalerriko eremu bakoitzean babes
sozialeko etxebizitzentzat eta etxebizitza tasatuentzat dauden erreserbak.

Bigarrena.– Baimen hori emateko, Markina-Xemeingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen tes-
tuan txertatu beharko da espediente bete izanaren justifikazioa, 2/2006 Legearen 80. artikulua eta 123/2012 Dekretuaren 15. artikulua arabera.

Hirugarrena.– Baimen hori aurreko ataletan ezarritako baldintzetan ematen da, eta ez du balio-
rik izango behin betiko onarpena, babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko estandarrak betetzeari
dagokionez, eskumena duten esparruetako batean (hartzaileak edo igorleak) aldaketarik eragiten
duten beste baldintza batzuekin ematen bada.

Laugarrena.– Markina-Xemeingo Udalerri agindu honen berri ematea.

Agindu hau behin betikoa da, eta administrazio-bidea amaitzen du. Interesdunek administrazioa-
rekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren
Administrazioarekiko Auzien Salan, agindu hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta
hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Halaber, nahi izanez gero eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, berrazter-
tzeko errekurtsoa jar dakioko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, agindu
hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean.
Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri berraztertze-
ko errekurtsoa espresuki ebatzi edo ustez ezetsi arte.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 10a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

ERANSKINA

ERANSKINA, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUAREN 2021EKO OTSAILAREN 10EKO AGINDUARENA. AGINDU HORREN BIDEZ, MARKINA-XEMEINGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN GUTXIENEN ESTANDARRAK OSORIK BETETZEKO BAIMENA EMATEN DA, ETXEBIZITZA-TRANSFERENTZIAREN BIDEZ

	Proposatutako bizitegitarako eraikigarritasuna				Aplikatu beharreko estandarrak	
	E. libreak	BSE	E. Tasatua	Guztira	BSE	E. Tasatua
Bizitegitarako hiri-lurzorua	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.
RII 1a Artibai *	1.110	0	880	1.990	0	0
RII 5a Del Carmen	970	0	0	970	42	42
RIII 8a Uribitarte	1.655	734	0	2.389	367	367
RXVI 43 Barinaga	6.032	2.011	2.011	10.054	2.011	2.011
RXV 40 Arretxinaga **	9.291	0	0	9.291	0	0
Hiri-lurzorua	19.059	2.745	2.891	24.694	2.420	2.420
	E. libreak	BSE	E. Tasatua	Guztira	BSE	E. Tasatua
Bizitegitarako lurzoru urbanizagarria	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.	m ² sabai-az.
RXV 42 Arretxinaga	4.823	9.040	3.287	17.150	9.040	3.287
Lurzoru urbanizagarria	4.823	9.040	3.287	17.150	9.040	3.287
Guztira	23.882	11.785	6.178	41.844	11.460	5.707
		17.962			17.167	